

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako elikagaien merkataritzaren sektoreko hitzarmen kolektiboa partzialki aldatzeko akordioa

Ebazpena, Lan eta Enplegu Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebatzen da, Arabako elikagaien merkataritzaren sektoreko hitzarmen kolektiboa aldatzeko partziala aldatzeko erabakia, erregistratzea, argitaratzea eta gordailatzea xedatzen duena. Hitzarmenaren Kodea: 01000325011981.

AURREKARIAK

2024ko otsailaren 14an aurkeztu da, ordezkariak honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuen, Federación de Empresarios y Empresarias de Comercio y Servicios de Álava eta langileen ordezkariak, UGT eta CCOO 2024ko otsailaren 14ko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuko 14.1.g artikulua –Lan eta Enplegu Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA)– dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 16a

Arabako lurralde ordezkarria

MARÍA VICTORIA PORTUGAL LLORENTE

**Arabako elikagaien merkataritzaren sektoreko
2020-2024ko hitzarmen kolektiboa aldatzeko akta**

Hitzarmenaren kodea: 01000325011981.

Gasteizen, 2024ko otsailaren 14an, 9:00etan, Lan Harremanen Kontseiluko Arabako lurralde-egoitzan eta PRECOa kudeatzeko lurralde-arduradunaren aurrean, UGT eta CCOOko ordezkari sindikalak eta Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresarien Federazioko (AENKOMER) ordezkariak bildu dira.

Arabako elikagaien merkataritzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren (2020-2024) negoziazio-mahairako deitu da, hitzarmena sinatu dutenen eskariz, eta gaur ordezkari sindikatuko eta enpresarien ordezkari horiek parte hartu dute adosteko 2024ko urtarrilaren 15eko 6. ALHAOn argitaratutako Arabako elikagaien merkataritzaren sektoreko hitzarmen kolektiboaren zati bat aldatzea.

ELA eta LAB sindikatuak ez dira bilera honetara etorri, behar bezala deituta egon arren.

Kontuan hartuta 2023ko abenduaren 22an harpidetutako hitzarmenaren testuan zenbait akats ikusi direla, Langileen Estatutuaren III. tituluko 87. artikuluan jasotakoaren arabera negoziatio honetarako duten ahalmena eta legitimazioa elkarri aitortuz eta onartuz, aldeek honako hau adostu dute:

Lehen.- Hitzarmenaren testuaren zati bat aldatzea, honela:

– Honako testu hau gehitzea 4. artikuluari: «urtean kalitatezko 3 asteburu (larunbatak eta igandeak) ezarriko dira, oporraldiak alde batera utzita eta urteko lanaldiari eragin gabe». Modu horretan, artikulua honela geratuko da idatzita:

«4. artikulua.- Lanaldia

Lanaldi arruntaren gehienezko iraupena benetako laneko 40 ordukoa (berrogei ordu) izango da asteen, eta, urteko zenbaketan, gehienez benetako 1.754 lanordu 2023an, aintzat hartuta 2023ko gehiegizko lanaldiko orduak 2024ko lehen seihilekoan hartu ahal izango direla. Gehiegizko lanaldia bi aldeek adostutako oporraldiei lotu ahalko zaie.

2024an, urteko gehienezko benetako lanaldia 1.746 ordukoa izango da.

Sektoreko jaiegunak herri bakoitzari dagozkionak izango dira, lan-egutegi ofizialaren zein lantokia kokatuta dagoen herriko jaien arabera. Horiei buruzko akordiorik ez badago, hitzarmenaren batzorde mistoak ezarriko du Vitoria-Gasteizerako ezarri diren jaien ekitate-printzipio berarekin. Honako hauek dira jaiegun horiek:

- Abuztuaren 4ko arratsaldea, Vitoria-Gasteizen.
- Lanaldi erdia Andre Maria Zuriaren jaiegunetan.
- Lanaldi erdia Olarizu egunean.
- Lanaldi erdia San Migel egunean.
- Abenduaren 24an eta 31n lanaldia, gehienez ere, 18:30ean amaituko da.

Gainerako jaiak lan-egutegiaren arabera hartuko dira.

Lanaldi erdia lanaldi osoa zein lanaldi erdia duten langileei aplikatuko zaie. Lanaldi osoa duten pertsonak lanaldi erdia egingo dute, eta lanaldi erdia dutenek beren lanaldiaren erdia. Lanaldi erdi horiek goizeko txandan egingo dira beti, arratsaldeetan itxita egongo delako, eta langile bakoitzaren urteko lanaldia mantenduko da.

Arratsaldea 14:00etatik aurrera hasten dela iritzi da.

Lanaldiaren banaketa irregularra:

Lanaldiaren banaketa irregularra urteko lanaldiaren ehuneko 5era mugatzea erabaki da.

Lan-egutegia:

Urtarrilean, enpresak behartuta egongo dira honako hauek jasoko dituen lan-egutegia ezartzera:

- Urteko lanaldia.
- Eguneko lanaldia.
- Asteko atsedeen-egunak.
- Oporraldia(k).
- Urteko 14 jaiegunak.
- Sektoreko jaiegunei dagozkien lanaldi erdiko egunak, gorago zehaztuta.

Egutegi hori legezko ordezkariak duten enpresetako langileen ordezkariak horrekin negoziatuko da, eta langile bakoitzari egutegiaren kopia bat emango zaio, modu zehatzean jakin dezaten zein egunetan eta ordutan lan egin behar duten.

Langileen legezko ordezkariak ez duten enpresetan, enpresak era berean egongo dira behartuta egutegi hori egitera eta langileei ematera.

Urtean kalitatezko hiru asteburu ezarriko dira (larunbatak eta igandeak), oporraldietan izan ezik, eta urteko lanaldiari eragin gabe.»

- 16 bis artikulua gehitzea, honela:

«16 bis artikulua.- Hotz-ganbera negatiboen plusa

Hotz-ganbera negatiboetan lan egiten duten eta horietan ehuneko 25eko edo gehiagoko lanaldia egiten duten guztiei hileko plus bat ordainduko zaie, erantsitako soldata-taulan jasota dagoenez.

Plus hori aparteko ordainsarrietan ere erabiliko da.

Lanaldi berezietan buruzko irailaren 21eko 1561/1995 Errege Dekretuaren III. kapituluko 5. ataleko 31. artikuluan jasotako atsedeenaldia kontuan hartuko dira.»

Bigarrena.- Lan Harremanen Kontseiluari agintzea, bere buruaren eta Arabako PRECOa kudeatzen duen lurralde-arduradunaren izenean, aldaketa-akordio hau Lan-agintaritzari aurkezteko, ALHAOn erregistra eta argitara dezan.